

## **Eusko Ikastola Caracas-en**

*Euzko Gaztedi*, [1960].

Ez degu beti negarrez ari bear. Gertakizun pozgarriak ere etorri oi dira noizean bein. Oraingo au da bat: Caracas'en eusko ikastola.

Euskera erakusten aritu diranak izan dira mordo bat emen. Batzuetan geiago, bestetan gutxiago, bañan euskera ikasteko bideak izan ditugu Caracas'en beti. Bañan umeak euskera ikasteko ta euskeraz jostatzeko ta euskeraz alkar itz egiteko biderik ez genduan beñere izan.

Eta ara emen "Euzkadi" ikastola Caracas'en.

Asmoa ez da oraingoxekoa, egia esan. Orain dala urte batzuek euskotar zintzo batzuek ibili ziran bide orretan lanean. Orduan ez zan ezer egiterik izandu: gurasoak geratu ziren lo. Ta aurrik gabe ezin ba da ikastolik gertatu. Ez ta euskal ikastolak ere!

Ta azi ura usteldu zala uste genduanean, ara nola lengo urtean bere loretxoa eman zuan; eta ara nola aurten, oraindik asi berrian, ia berrogei ta amar umeko ikastola ederra izateko zorian gauden.

Ala, aurreneko loretxo aul ura ia loretegi eder bat egin zaigu.

Lan au ez da bere gixa egin; lore oiek ez dira lorezairik gabe sortu. Ondore au, orain lanean biotzki ari diran euskotarrei zor diegu.

Ez gera gu, ez, esker eman zale onak izaten. Egiten dan guzia beste norbaitek egin bearrekoa dala iruditzen zaigu. Askotan ez gera konturatzen egin-bear oietako asko gure esku dauzkagula.

Zorion bitzorrak, ba da, "Euzkadi" ikastolako eratzalle ta maixuei. Umetxo oiek, bere gurasoak eta euskotar guziak geratzen gera zueidi zorretan.